

Ama Birjiña eta Isabel-donearen alkarekustea

UZTAREN BIKO PESTA-EGUNA.

Jainkoa-ren amorez
Biotza sutua,
Aizearen egalak
Baño ariñagua,
Korrika mendiz-mendi
Birjiña dijua,
Ikustatzera Isabel
Bere lengusua.

Guazen orobat ariñ
Birjiña-rengana
Biotzean degula
Aur *Jesus* laztana.
Kristo-rekin bagoaz
Gu berarengana,
Nai-ta ez etorriko
Da bera gugana.

Jesus eta Mariya
Billa alkarrekin,
Zorion izateko
Zeruban berekin;
Batak besteagandik
Eziñ du aldegiñ;
Leenago zeru-lurrak
Austu ta desegiñ.

Juda-ko Apaiz-prestu
Zakarias ona,
Echean sartu zatzu
Gaurtik zoriona;

Birjiña batek dakar
Jainko-ta Gizona,
Bere erray-garbietan
Jargoitu zayona.

Ekus-dezu Isabel,
Poz-poz dabilela,
Maria-ren itzketa
Aitu-bezin-bela:
Atsegin-dardarakin
Senti-du sabela,
Ta aurra bere-barruan
Saltoka-bezela.

Zerubak eta lurrak
Bedeinka zaituzte
Onak zeratelako,
Eta ez autuste;
Jesus eta Mariyak
Maite bagaituzte,
¿Zerren ez mesederik
Andienak use?

Guk ere jarrai-tzagun
Santuen bideak,
Animak salbatzeko
Eziñik obeak;
Topatu-arren noizpait
Aranza tarreak,
Bertutez dira biguñ
Ta arrosaz beteak.

JOSÉ IGNACIO DE ARANA.